



**A.12.2. BARRENA II**

A.12.2. BARRENA II

Azalera: 20.532 m<sup>2</sup>

**I. Ordenazio-irizpideak eta Helburuak**

Eremu honek Barrena Kaleko zenbaki bikoitietan kokatutako eraikinak hartzen ditu. Eraikin industrialak eta bizitegi eraikinak daude nahasian.

Horregatik, hau planteatzen da proiektu honetan:

\* Eraikin industrialak bizitegi erabileretarako eraldatzea.

**II. Hirigintza-Erregimen Orokorra**

Kalifikazio Globala:

O-CG-01 "Kalifikazio Globala", Ordenazioko (I. Liburukia) V. Planoaren arabera.

Eraikuntzaren Baldintza Partikularrak:

Egungo eraikinak, ordeztarakoan, O-AL-AO-1 eta O-AL-AO-2A "Lerokadurak eta Sestrak. Ordenantza Eremuak", XII. planoetan zehazturiko lerokadurei eta sestrei egokitu beharko dira, eta 2/2006 ELH Legearen xedapenak kontuan hartuta Hirigintza Arau Orokorrei egokitu.

Erabilera Baldintza Partikularrak:

Eremuaren erabilera ezaugarritzen duena Bizitegi edo egoitza erabilera da: Hirigintza Arauen agirian 8.3.07. Artikulua.- Egoitza erabilera (6. erabilera).

**III. Ordenazio Xehatua**

Eremu honetan zehaztutako eremu-banaketa baldintzak, O-CP-01 "Kalifikazio Xehatua", Ordenazioko (I. Liburukia) VII. Planoan ezarritakoari egokitu beharko dira.